



## JAUN/ANDRE HORI:

## EXCMOIA. SR.ÍA:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorritik, Vitoria-Gasteizen, Lehendakariatzako egoitzan, **2021eko IRAILAREN 7an**, 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakariatza, a las 10:00 horas del día **7 DE SEPTIEMBRE DE 2021**, con el siguiente

## GAI-ZERRENDA

## ORDEN DEL DÍA

Aurreko bileraren akta irakurri, eta hala badagokio, onartu.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la Sesión anterior.

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA  
AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Erabaki-proposamena, Ihobe, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarekin sinatu beharreko laguntza juridikoko hitzarmena jakinarazteko dena.

2

Propuesta de Acuerdo por el que se comunica el convenio de asistencia jurídica a suscribir con la Sociedad Pública de Gestión Ambiental, Ihobe, S.A.,

Eduki ekonomikoa duten agindu eta erabakien zerrenda gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin.

3

Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, 2022-2025 aldirako euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeak jarduerak bultzatzeko laguntzetarako deialdia egiten duen Agindua finantzatzeko.

4

Propuesta de Acuerdo de autorización del gasto superior a 5.000.000 euros, para la financiación de la Orden por la que se convocan ayudas para apoyar las actividades de grupos de investigación del sistema universitario vasco 2022-2025.



BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA  
GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Dekretu-proiektua, honako Dekretu honen hutsak zuzentzekoa: 72/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa lanpostuen zerrendak onartzen dituzten dekretuak aldatzen dituena.

- 5 Proyecto de Decreto de corrección de errores del Decreto 72/2021, de 23 de febrero, de modificación de los Decretos por los que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE), Erakunde Autonomiadunak, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei 2021-2022 ikasturteko euskara-ikastaroengatik esleituko zaizkien dirulaguntzak finantzatzeko.

- 6 Propuesta de Acuerdo de autorización del gasto superior a 5.000.000 euros, para la financiación de las ayudas económicas a conceder por el organismo autónomo Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE), a los euskaltegis privados y a los de autoaprendizaje del euskera homologados, por los cursos de euskera correspondientes al curso 2021/2022.

Erabaki-proposamena, Buruntzape S.L.-ri dirulaguntza zuzena ematekoa, "Martin Ugalde pertsonaiaren produkzio idatzia katalogatzea" egitasmoa finantzatzeko, 2021. urtean.

- 7 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Buruntzape S.L., para financiar la catalogación de la producción escrita de Martin Ugalde en el año 2021.

TURISMO, MERKATARITZA ETA  
KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gaueko aisialdiko establezimenduen titularrentzako laguntza-programa arautu eta deitzen duen Agindua finantzatzeko.

- 8 Propuesta de Acuerdo de autorización del gasto superior a 5.000.000 de euros, para la financiación de la Orden por la que se regula y convoca el programa de ayudas para titulares de establecimientos de ocio nocturno del País Vasco.

Erabaki-proposamena, Barakaldoko Udalari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, "Industria Ondarearen eta Itsasadarraren Balorazioa" trakzio-proiektuaren esparruan jarduketak egiteko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Barakaldoko Udalaren artean laguntza kudeatzeko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko baimena ematekoa.

- 9 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa al Ayuntamiento de Barakaldo, para la realización de actuaciones en el marco del proyecto tractor "Valoración del Patrimonio Industrial y de la Ría", y de autorización de la suscripción de un convenio de colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ayuntamiento de Barakaldo para la gestión de la ayuda.



Erabaki-proposamena, Enkartur Turismo Elkartea berme errealera eratu beharretik salbuestekoa, lehentasunezko jarduketaren eremua berrabiarazteko planaren barruan "Turismo eta kultura-interkonektioak" proiektuaren esparruan jarduketak egiteko emandako zuzeneko dirulaguntzagatik.

10

Propuesta de Acuerdo de exoneración a la Asociación de Turismo Encartaciones-Enkartur de la necesidad de constituir garantía por la percepción de una subvención directa para la realización de actuaciones en el marco del proyecto "Interconexión Activos Turísticos y Culturales", incluido en el plan de relanzamiento de zona de actuación preferente.

IZENDAPENAK ETA KARGU-  
KENTZEAK  
LEGEBILTZAR-EKIMENAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 3a.

En Vitoria-Gasteiz, 3 de septiembre de 2021.

**IZP./FDO.: GARAMENDI LANDA, OLATZ.**  
**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA EUSKO**  
**JAURLARITZAREN IDAZKARIA CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y**  
**AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL CONSEJO DE GOBIERNO**